

CHORIANDRA.

(**NESKA JUSTACHO ENRILE TA ARZAK-I.**)



—¿Zergatik zera, chori pollita,

Egaan Zerura igotzen

Goizean, eta illundutzean

Mundua dezu lagatzen?

¿Erakusteko dituzun luma

Kizkurrak zera goitutzen?

¿Goiteriyagaz, chit arroturik,

Zera gugandik aldentzen?

—Onela zion, kardincha batek

Chorriandrari galdetzen

Onek jarririk zelai batean

Eranzun zion kantatzen:

—Larrosaturik egun sentiya

Eder danean agertzen,

Eta gabaren argikariyak

Zaizkigunean azaltzen,

Baso gozoa, mendi maitea,

Guztiyak ditut utzitzen;

Kea bezela, nola likurta

Loreetatik dan alchatzen,

Gora, chit gora, joaten naiz, eta

Egillea det doaintzen.

K. ECHEGARAY-KOAK.

